

ZUBITXO ERREKA BIZIRIK



Lezoko ekoloji taldeak Zubitxo erreka-egoeraz eta, bera osatzen duten adarren txikizioaz informatu nahi zaituztegu.

Zenbait sorburu desagertzen ari dira. Ixurketek, erriberen desagertaketek, estalketek, etabar, Lezoko erreka garbiak gaur egun egoera penagarri batean jarri dizkigute.

Instituzioek arazo larri honi aurre egin beharrean, utzikieriaz batetik eta babesle bezala bestetik, prozesu luze honen aldekoak dira; orain arte egin dutenari begiratzea besterik ez dago.

Azken urratsa SG1 proiektuan eman nahi da, hau da, ikastetxea, polikiroldegia, ageriko kirolgune eta bertan burutu nahi den urbanizazioarekin.

Ekoloji taldeak Zubitxo erreka-egoeraren aldeko alegazioak sartu ditu, hau da, mantentzearen eta berreskurapenaren aldekoak.

Udalak bi informe eskatu ditu. Bat Arantzadi Zientzi Elkarteari, eta bestea, Lezoko uren saneamenduz arduratzen diren bi injenieriei.

Bi informeak, erreka-egoeraren aurka azaltzen dira. Beraz, ondorio bezala, Zubitxo errekan betirako estali nahi diren 300 metroak salbatzeko planteamendu berri baten beharra begibistakoa da.

Udaletxean parte hartzen duten talde politiko ezberdinek erreka suntsituko duten proiektuak bakarrik bultzatu dituzte. Oraindik ez da erreka babesten duen proiekturik egin, nahiz eta eztabaida hau, urte dexente herritarren artean egon den.

Horri honen bitartez, prozesu guzti honen berri daukazu eta, era berean, herritar bezala erreka honen etorkizunaz zeresanik baduzu. Beraz ez zaitetz atzera begira gelditu.

ZUBITXO ETA BESTE ERREKEN EGOERAREN SALAKETA

Zubitxo erreka-egoera gaur egungo egoera tamalgarria da. Bere erribera gehienak urbanismo basatiaren eragina dela eta, txikituak izan dira eta beste hainbat zatietan erabat estalirik dago.

Honez gain, erreka honek ixurketa ugari ere jasan behar ditu, batezere herriko estolde-riagatik. Bere jaioleku asko ere erasotuak izan dira eta erreka ur kopuruari dagokionez eragin zuzena duten erasoak dira: estalketak, baso suntsiketak, pista eraiketak, erosioa, matarrasak, suteak,...

Erriberen suntsiketa, kutsadura ugariak eta baso erregulatzailen suntsiketak bere bizi-tza maila jeitsi du.

Baina guztiz ERREKUPERAGARRIA da borondatea baldin badago behintzat, eta honela baieztatzen digu Lezoko udalaren aginduz Arantzadiko biologa den Iñaki Urrizalkik egindako azterketak.

Era berean, eta epe laburrera Pasaiako Badiaren Saneamentu Egitasmoa gauzatu ezke-ro ez omen da erreka ixurketarik egingo.

Erriberak babestu eta errekuperatu ezker, Zubitxo erreka berpizten hasiko litzateke.


Baina urbanismo basatiaren hildoan jarraituz eta 1994ko urtean, Lezoko agintari-ek Zubitxo erreka behin betirako akabatu nahi dute bere azken zatian, SG1ko proiektuak, hau da, polikiroldegiarenak, lurperatu egiten bait du.

Eraso berri hau hala ere ez da ekintza isolatu bat, jarrera bat baizik. Lopene inguruan ere, erreka lurperatuta dago eta arazo ugari sortzen dira horrexegatik (uholdeak). Babes Ofizialeko Etxeen proiektua badago, baina ez da erreka errekuperatarik aurriztatu.

Plazeta ondoan ere, eta garai bateko garbilekua dagoen tokian, erreka hormigoiez inguratua izan da eta erribera errekupera ezina utzi dute. Harrobi ondoko sorleku batean, etengabe haunditzen ari den eskonbrera erraldoi bat egiten ari dira.

Herriko beste errekei ere begiradatxo bat ematen badiegu (Urrullo, Une, Iturrin, Gaintza, Saizar, etab.), berehala ohartuko gara hauek ere hil zorian ditugula (ixurketak, eskonbrerak, bete lanak, industria eraikuntzak, errepideak etabarren ondorioz).

Lezoko ekoloji taldeak erreken egoera salatzen dugu baina bere egoeraren arduradun nagusiak nortzuk diren ahaztu gabe: Herriko Udala eta beste Instituzioak, dirudunen arda-



Denunciamos el mal estado de los ríos, pero sin olvidar que los máximos responsables de que estén en tan lamentable estado son el Ayuntamiento de Lezo y las demás instituciones implicadas.

tzen menpe bait daude, eta beren axolagabekeri eta konplizitatearekin herritar guztion ondasuna diren errekek txikitzea baimendu eta bultzatzen bait dute.

Azken finean, Lezoko natura emaile onenari salatzen ari dira.

ZER GERTATZEN DA SG1 (KIROLGUNE eta ESKOLAGUNEAN)?

Herritar askok jakingo duzuenetz, eskola eta kirolgune berriaren gaia aspaldidanik datorkigun gaia da.

Udal ezberdinek, proiektu ezberdinak burutu dituzte. Honela bada 1992. urtean eta EAko alkatetza genuen garaian proiektua zela medio, Lezoko Ekoloji taldeak bi alegazio aurkeztu zituen erregistroan, bata herriaren mintegiari buruzkoa eta bestea Zubitxo erre-kari dagokiona, proiektu honek hazitokia desagertzea eta erreka-aren estalketa eta behin betirako hilketak suposatzen duelako.

92ko urrian Foru Aldundiko diputaduen Kontseiluak aurkeztutako alegazioak baztertu egiten ditu.

Bi urte beranduago, 94ko ekainean Kirol eta Eskolagunearen arauak aldatzeari buruzko iragarkian alegazio epe berri bat zabaltzen da.

Alegazio epe barruan, hiru data eman zitzaizkigun informazioa eskuratu ahal izateko eta udalaren teknikoari, proiektuari zegozkien datuak eskatu genizkion (kotak, berdeguneen benetazko neurriak, etab.) eta oraindik gaur egun ez dugu jaso datu horien berririk.

Hala ere, uztailearen 20an, ekoloji taldeak alegazioak aurkezten ditu. Hauetako bat informazio faltari buruzkoa zen.

Lezoko Ekologi Taldea presentó 10 alegaciones contra la cubrición de la Erreka Zubitxo basadas en aspectos:

- ▶ Histórico-culturales.
 - ▶ Ecológicos
 - ▶ Riesgo de inundación.
 - ▶ De impacto visual.
 - ▶ Económicos.
 - ▶ Legales (Ley de costas).
-

Herriko mintegia, Zubitxo erreka eta berdeguneei buruz 16 alegazio sartu genituen.

Hiru, hazitokiko biala, aparkaleku eta eskailerei buruzkoak. 10 erreka-aren buruzkoa: arrazoi historiko kulturalak, ekolojikoak, segurtasunezkoak (uholde arriskua) estetiko paisajistikoak, ekonomikoak, lurraren kotari dagokiona, Ley de Costas eta Servidumbres delakoarena, Pasaiaiko Badiaren Saneamendu Egitasmoarena eta erreka-aren erreku-eraketa bultzatze-ko ikerketarik ez egitearena.

Beste bi berdeguneei dagokiena. Bat gaur egungo berdeguneei buruzkoa eta bestea berdegune berrien eskaxia eta kalitateari dagokiona.

Azken alegazioa bertatik pasatzen den tentsio handi-ko argi indar sarea kentzeko eskatzen zuena.

Era berean, irailean ekoloji taldeak LEZO aldizkarian Zubitxo errekarari buruzko txosten bat kaleratzen du, errekararen egoera, historia, landaretza eta fauna eta Berreskuratze plangintza baten urratsak azalduz.

Urriaren 21ean, hau da, hiru hilabete beranduago jaso genituen alegazioen erantzunak. 72 ordu izan genituen, erantzuna jaso bilera osatu, azterketa eta erantzuna prestatu ahal izateko, zehazki asteburua.

Urriaren 24an Hirigintza Batzordean alegazioak dira aztergai. Alegazioak direla eta Udaletxeak errekarari buruzko bi ikerketen berri ematen digu, bata Arantzadiko biologoa den Iñaki Urrizalkik egindakoa eta bestea Pedro Azkue eta Narciso Iglesias ingeniariak egindakoa. Era berean, proiektuaren egileak alegazioei erantzuten die.

El ayuntamiento no ha barajado en ninguno de sus proyectos la posibilidad de recuperar la errea.



IKERKETAK

Biologoak egindako azterketak, ekoloji taldeak sartutako alegazioak baieztatzen ditu, errekararen estalketaren aurka azalduz eta errea proiektuan integratu daitekeela agertuz. Baldintza batzuek ezkerreko errea erreku-peragarrizat jotzen du (ixurketen mozketak, udan ur kopuru bat mantentzea). Era berean, errea osorik berreskuratzeko estudio sakon baten beharra azpimarratzen du: ur kalitatearen azterketa, errekararen estudio hidrolojikoak, landare eta animalien katalogo bat eta espezie berrien sarrera ikustea.

Ingenierien ikerketan ere, ekoloji taldekoen alegazioen aldeko arrazoiak agertzen dira. Errekaren estalketa bere hilketa dela adierazteaz gain, gaur egun, honelako estalketak legez kanpoak direla dio bi arrazoi azalduz:

Bata segurtasunarena: honelako estalketek uholde arrisku

larria areagotzen dutelako eta bestea, bere txukunketa eta mantenimendua estaliz gero, oso garestia eta zaila izango delako.

Proiektuaren egileak emandako erantzunetan erreka ezin dela berreskuratu dio, agerian uzteak suposatzen duen arriskuak agertuz. Beraiek erreka estaltzea bultzatzen dute. Ley de Costas-ek ere ez omen du eraginik proiektuan.

Udal teknikoak berriz, honako erantzuna ematen dio aurkeztutako 17 alegazioei:

Errekaren lehen zatia ez estaltzearen alde azaltzen da. Bigarren zatiari dagokionez Polikiroldegira doan bial berria, inguruko aparkalekuen eraikuntzak eta Polikiroldegiaren eraikuntza berak, erreka berreskurapena baldintzatzen dutela dio.

Serbidunbreei buruz alegazioak arrazoi duela dio, baina Kaiako Zerbitzugune Plangintzan, serbidunbreak eta gaur egungo INGEMAR enpresak erabiltzen duen lekua, Lezoko udalak erabiltzeko aukera aurreikusten omen da.

Hazitokiari buruzko 3 alegazioak onartzen ditu eta proposatzen diren aldaketak teknikioki posibleak direla baieztatzen du.

Berdeguneei dagokionez informazioa zehaztu behar dela dio, berdeguneak haunditu, proiektuak erasotzen dituen berdeguneak lekuz aldatu eta berdegune berriak kalitateari buruz ados agertzen da.

Argi indar sareari buruz, Iberdrola ez da lurperatzearen aldekoa "garestia" delako. Linea hortik kentzeari buruz ez da ezer agertzen.

Lurraren Kotak, Badiaren Saneamendu Planaz, alegazio ekologiko historiko kulturalaz, uholdeen arriskuaz eta ekonomikoari buruz ezertxo ere ez du aipatzen.

LEZOKO EKOLOGI TALDEA

